



# ACTIVITY BREAKS: IKASI MUGITUZ!

(Euskara)

Silvia Arribas-Galarraga / Julen Maiztegi  
Izaskun Luis de Cos / Saioa Urrutia





*Jarduera fisikoak hainbat onura dakarzkio osasunari: gaixotasunak prebenitzen eta tratatzen laguntzen du, eta osasun mentalaren egoera eta bizi-kalitatea hobetzen ditu. Ikastetxea eta irakasleak funtsezkoak dira, osasun-agente gisa jardun baitezakete.*

**Itziar Larizgoitia Jauregui**

Eusko Jaurlaritza. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaria.

*Gero eta gehiago dira neurozientziaren alorrean argitaratzen diren ikerketak, jarduera fisikoak haurren eta gazteen garapenean eta errendimendu akademikoan duen eragin positiboa azpimarratuz.*

**Birjinia Pozo González**

Berritzegune Nagusiko Zuzendaria.



*Benetan euskal gizarte aktibo bat sortu nahi badugu, beharrezkoa da haur eta gazteen artean eragitea bereziki, bizitzarako ohitura onak haurtzaroan landu behar direlako.*

**Gorka Iturriaga Madariaga**

Eusko Jaurlaritza. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaria.

#### Egileak:

- Silvia Arribas-Galarraga
- Julen Maiztegi Kortabarria
- Izaskun Luis de Cos
- Saioa Urrutia Gutierrez

#### Diseinua:

- Vudumedia.com

#### Marrazkiak:

- Sergio González

#### Argitaratzaileak:

- Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco  
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila  
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza
- IKERKI taldea  
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea  
UPV / EHU



*Activity Breaks* edo etenaldi aktiboak gela-saioetan egiten diren etenaldi laburrak dira. Proposamen honetan, irakasgaiko irakasleak geldialdia egingo du saioaren erdi aldera, ondoren aurkezten diren fitxetan oinarrituta, ikasleei ikasgaiaren edukiekin lotutako mugimendu batzuk proposatzeko. Etenaldi horiek 5 eta 10 minutu arteko iraupena dute, eta, ondoren, ikasgelako dinamikak bere ohiko mar-txa berreskuratuko du.


Jarraian, Euskara gaiko edukiekin lotutako zenbait jardue-ra fisiko fitxa formatuan aurkezten dira.

Fitxak, saio bakoitzeko bat egiteko moduan diseinatuta daude. Irizpide fisikoei eta irizpide kognitiboei jarraiki an-tolatu dira, eta horietako bakoitzaren zailtasun-maila adie-razi da.

Ariketak, batez ere, banaka egiten dira, eta gehienek ez dute espazio aldaketarik eskatzen. Maila fisikoan batez ere koordinazioa edo sasoi fisikoa lantzen duten jarduerak be-reizten dira. Mugikortasun urriko ikasleentzat egokitutako jarduerak ere proposatzen dira.

Euskara. Edukiak:

- Ortografia (Txistukarikak eta H)
- Ergatiboa (Nor ala Nork)
- Izena
- Adjektiboak
- Konmutadura (-a, -ak, -rik)
- Erakusleak
- Aditza (Nor- Nork eta Nor-Nori-Nork)



## Etenaldi aktibo arrakastatsuendako DEKALOGOA:

1. Edukiak alde zuzenetik landu.

- *Fitxa hauek zuzenetik landu beharrekoko edukiak errebasatzen laguntzen dute. Kontuan hartu ikasleen ikaskuntza-prozesua fitxa egokia aukeratzeko.*

2. Fitzak aukeratzeko ordena librea da.

- *Lantzen ari den edukiaren edo taldearen erritmoaren araberrakoa izan behar da.*

3. Irakurri fitxa saioa baino lehen.

4. Etenaldi aktiboen hasiera adierazten duen jarraibide bat ezarri.

- *Adibidez: txalo bat eman, dena mahai gainean utzi.*

5. Azaldu argi eta labur jarduera (azalpenerako minutu bat baino gehiago ez).

- *Ahal bada, adibideak jarri.*

6. Hitzak edo esaldiak, poliki, ozen eta argi irakurri.

- *Beharrezkoa bada, behin baino gehiagotan irakurri.*

7. Jardueretan, saiatu 10 minutuko denbora EZ gainditzen.

8. Etenaldi aktiboen amaiera adierazten duen jarraibide bat ezarri.

- *Adibidez: 2 txalo eman, atzerako kontaktetako erloju bat erabili...*

9. Pazientzia izan.

- *Lehenengo saioak apur bat nahasgarriagoak izan daitezke, baina 3-4 saiotan ikasleak dinamikan murgiltzen dira.*

10. Etenaldi aktiboak, gutxienez astean 3 saiotan egitea gomendatzen da.

### **ERATORRITAKO ONURAK:**

- Motibazio-maila handitzen da.
- Arreta eta kontzentrazioerako gaitasuna areagotzen da.
- Garunaren funtzio exekutiboaren garapenean lagungarria da.

**ORTOGRAFIA:  
TXISTUKARIAK  
S, X, Z,  
TS, TX, TZ**



# 1 TXISTUKARIEKIN JOLASEAN

S, X, Z (bi saiotarako proposamena)

# 2 TXISTUKARIEKIN JAUZIKA

S, X, Z (bi saiotarako proposamena)

# 3 T-DUN TXISTUKARIAK


TZ, TX, TS (bi saiotarako proposamena)

# 4 T-DUN TXISTUKARIAK DANTZAN

TZ, TX, TS (bi saiotarako proposamena)

# 5 TXISTUKARIAK ASMATU

S, X, Z, TZ, TX, TS (bi saiotarako proposamena)



# TXISTUKARIEKIN JOLASEAN

1

🕒 9-10 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆


👤 Sasoi fisikoa

Ikasleak zutik.

Irakasleak, fitxaren zerrendatik, hitzak poliki-poliki irakurriko ditu.

Hitzaren baitan, honelako jarduerak egin:


- **S**: salto bira eman.
- **X**: salto bat egin eta hankak eta besoak zabaldu (guraizea).
- **Z**: bi eskuekin “Z” irudikatu (airean).



**Egokitzapena (mugikortasun murriztua):**

Eserlekuan:

- **S**: airean 2 eskuekin “S” irudikatu.
- **X**: besoak gurutzatu.
- **Z**: 2 eskuekin “Z” irudikatu (airean).



## Hitz zerrenda (S, X, Z):

### 1. Saioa

1. Lehengusua
2. Goiza
3. Soka
4. Zikin
5. Meza
6. Asko
7. Nahastu
8. Maisua
9. Islatu
10. Marrazkia
11. Suspertu
12. Zapata
13. Azterketa
14. Zizare
15. Xaboia
16. Elkartasuna
17. Sarrera
18. Eliza
19. Zuhurtzia
20. Ostatu

### 2. Saioa

1. Eguzkia
2. Sorgina
3. Sugea
4. Puxika
5. Oilasko
6. Gurasoa
7. Xerra
8. Isolatu
9. Zortea
10. Azkena
11. Kezka
12. Sumendia
13. Euskalduna
14. Esnea
15. Ixa
16. Sei
17. Gozoa
18. Pasa
19. Izeba
20. Zuzen



*Hitzak zoriz irakurri.*

# TXISTUKARIEKIN JAUZIKA

2

Edukia: S, X, Z (bi saiotarako proposamena)

🕒 5-7 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆

👤 Sasoi fisikoa


Ikasleak zutik. Tokian, eten gabe **jauzi txikiak eginez**. Irakasleak, fitxaren zerrendatik, hitzak poliki-poliki irakurriko ditu. Hitzaren baitan, honelako jarduerak egin:

- **S**: salto bira emanez. **Jarraitu** jauzi txikiak eginez.
- **X**: salto bat egin eta hankak eta besoak zabaldu (guraizea). **Jarraitu** jauzi txikiak eginez.
- **Z**: bi eskuekin “Z” irudikatu (airean). **Jarraitu** jauzi txikiak eginez.

**Egokitzapena (mugikortasun murriztua):**

Eserlekuan. Eten gabe eskuekin bularra eta mahaia ukitzen:

- **S**: airean 2 eskuekin “S” irudikatu. **Jarraitu** bularra eta mahaia ukitzen.
- **X**: besoak gurutzatu. **Jarraitu** bularra eta mahaia ukitzen.
- **Z**: 2 eskuekin “Z” irudikatu (airean). **Jarraitu** bularra eta mahaia ukitzen.



## Hitz zerrenda (S, X, Z):

### 1. Saioa

- |              |               |
|--------------|---------------|
| 1. Bazkaldu  | 11. Solasaldi |
| 2. Ezinegona | 12. Zubia     |
| 3. Muxua     | 13. Izarrak   |
| 4. Osatu     | 14. Xede      |
| 5. Sua       | 15. Neska     |
| 6. Osasun    | 16. Ixo       |
| 7. Ikusi     | 17. Xaxatu    |
| 8. Zauria    | 18. Usoa      |
| 9. Uxatu     | 19. Ezkontza  |
| 10. Axola    | 20. Zirikatu  |

### 2. Saioa

- |               |                |
|---------------|----------------|
| 1. Gaztea     | 11. Izotza     |
| 2. Zaldi      | 12. Segi       |
| 3. Gaixotasun | 13. Ahaztu     |
| 4. Pixa       | 14. Gozokia    |
| 5. Zazpi      | 15. Sukalde    |
| 6. Solas      | 16. Zerrenda   |
| 7. Xehetasun  | 17. Sagarra    |
| 8. Ehiza      | 18. Perretxiko |
| 9. Sagua      | 19. Egiazko    |
| 10. Maitasuna | 20. Astindu    |



*Gelditu gabe. Intentsitate altua.*

# T-DUN TXISTUKARIAK

3

Edukia: TS, TX, TZ (bi saiotarako proposamena)

🕒 5-7 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆

👤 Sasoi fisikoa

Ikasleak zutik.

Irakasleak, fitxaren zerrendatik, hitzak poliki-poliki irakurriko ditu.


Hitzaren baitan, honelako jarduerak egin:

- **TS:** salto 1 egin. Ondoren, beste salto 1 bira emanaz.
- **TX:** salto 1 egin. Ondoren, beste salto 1 hankak eta besoak zabalduz (guraizea).
- **TZ:** salto 1 egin. Ondoren, 2 eskuekin “Z” airean marraztu.

**Egokitzapena (mugikortasun murriztua):**

Eserlekuan:

- **TS:** txalo 1 eta airean “S” forma marraztu.
- **TX:** txalo 1 eta besoak gurutzatu.
- **TZ:** txalo 1 eta airean “Z” forma marraztu.



## Hitz zerrenda (TS, TX, TZ):

### 1. Saioa

- |              |                |
|--------------|----------------|
| 1. Jatetxe   | 11. Etxe       |
| 2. Bihotz    | 12. Txorizo    |
| 3. Iltze     | 13. Urtxintxa  |
| 4. Dutxa     | 14. Aitzur     |
| 5. Hortzak   | 15. Jaitsi     |
| 6. Dantza    | 16. Ebatzi     |
| 7. Unibertso | 17. Txistu     |
| 8. Arkatz    | 18. Perretxiko |
| 9. Tripotx   | 19. Ahuntz     |
| 10. Itxura   | 20. Tximinia   |

### 2. Saioa

- |                |                |
|----------------|----------------|
| 1. Sinetsi     | 11. Arrantzale |
| 2. Bertso      | 12. Itsu       |
| 3. Putzu       | 13. Kontseilu  |
| 4. Atsedeen    | 14. Giltza     |
| 5. Atsegin     | 15. Txantxa    |
| 6. Eltxo       | 16. Bizkotxo   |
| 7. Suhiltzaile | 17. Jostorratz |
| 8. Laguntzaile | 18. Indartsu   |
| 9. Otso        | 19. Erakutsi   |
| 10. Ikatz      | 20. Itsu       |



*Hitz bakoitza 2 aldiz jarraian irakurri. Bigarrena eta gero, mugimendua egin.*

# T-DUN TXISTUKARIAK DANTZAN

4

Edukia: **TS, TX, TZ** (bi saiotarako proposamena)

🕒 5-7 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆

👤 Sasoi fisikoa


Ikasleak zutik. Tokitik mugitu gabe, dantzan/saltoka/korrika. Irakasleak, fitxaren zerrendatik, hitzak poliki-poliki irakurriko ditu. Hitzaren baitan, honelako jarduerak egin:

- **TS**: salto 1 egin. Ondoren, beste salto 1 bira eman. Jarraitu korrika.
- **TX**: salto 1 egin. Ondoren, beste salto 1 hankak eta besoak zabalduz (guraizea).
- **TZ**: salto 1 egin. Ondoren, 2 eskuekin “Z” airean marraztu.

## Egokitzapena (*mugikortasun murriztua*):

Eserlekuan. Eskuekin “dantzan” eten gabe:

- **TS**: txalo 1 eta airean “S” forma marraztu. Jarraitu eskuekin dantzan.
- **TX**: txalo 1 eta besoak gurutzatu. Jarraitu eskuekin dantzan.
- **TZ**: txalo 1 eta airean “Z” forma marraztu. Jarraitu eskuekin dantzan.



## Hitz zerrenda (TS, TX, TZ):

### 1. Saioa

- |                  |               |
|------------------|---------------|
| 1. Izotza        | 11. Txukun    |
| 2. Irakatsi      | 12. Arrautza  |
| 3. Tximeleta     | 13. Itsaso    |
| 4. Txilina       | 14. Zuhaitz   |
| 5. Bederatzi     | 15. Fitxa     |
| 6. Txantxangorri | 16. Urtsu     |
| 7. Matxura       | 17. Tximino   |
| 8. Erratz        | 18. Itsumustu |
| 9. Hautsontzi    | 19. Untxi     |
| 10. Hutsik       | 20. Mantso    |

### 2. Saioa

- |             |                |
|-------------|----------------|
| 1. Pintza   | 11. Motz       |
| 2. Txanoa   | 12. Txorimalo  |
| 3. Artzain  | 13. Gutxi      |
| 4. Jakintsu | 14. Kontsolatu |
| 5. Tximista | 15. Kontsumo   |
| 6. Mahatsa  | 16. Itxi       |
| 7. Iritsi   | 17. Txintxo    |
| 8. Entzun   | 18. lokatza    |
| 9. Saltsa   | 19. Atsoa      |
| 10. Mehatxu | 20. Eltze      |



*Ikasletoa une oro mugimenduan. Letra gabeko musika jar daiteke.*

# TXISTUKARIAK ASMATU

5

Edukia: S, X, Z, TS, TX, TZ (bi saiotarako proposamena)

🕒 5-7 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆

👤 Sasoi fisikoa


Ikasleak zutik. Tokitik mugitu gabe, dantzan/saltoka/korrika. Irakasleak, fitxaren zerrendatik, hitzak irakurriko ditu. Hitzaren baitan, honelako jarduerak egin:

1. S: salto bira eman.
2. X: salto 1 egin eta hankak eta besoak zabaldu (guraizea).
3. Z: 2 eskuekin "Z" irudikatu.
4. TS: salto 1 egin. Ondoren, beste salto 1 bira eman.
5. TX: salto 1 egin. Ondoren, beste salto 1 hankak eta besoak zabalduz (guraizea).
6. TZ: salto 1 egin. Ondoren, 2 eskuekin "Z" airean marraztu.

Egokitzapena (*mugikortasun murriztua*):

Eserlekuan:

- S: 2 eskuekin "S" irudikatu.
- X: besoak gurutzatu.
- Z: 2 eskuekin "Z" irudikatu.
- TS: txalo 1 eta airean "S" forma marraztu.
- TX: txalo 1 eta besoak gurutzatu.
- TZ: txalo 1 eta airean "Z" forma marraztu.



## Hitz zerrenda (S, X, Z, TS, TX, TZ):

### 1. Saioa

1. Zama (*pisua*)
2. Izun (*faltsua*)
3. Isun (*zigorra*)
4. Sama (*lepoa*)
5. Haltz (*zuhaitza*)
6. Zaio (*aditza*)
7. Altxa (*jaiki*)
8. Hots (*zarata*)
9. Zerra (*mozteko*)
10. Ahotz (*lasto*)
11. Hazi (*handitu*)
12. Xerra (*elikagaia*)

### 2. Saioa

1. Zaindu (*babestu*)
2. Hits (*triste*)
3. Hasi (*ekin*)
4. Iskin (*egin*)
5. Xorrotx (*maskaradako pertsonaia*)
6. Ahots (*boza*)
7. Izkin (*ertz*)
8. Zorrotz (*puntaduna*)
9. Saio (*emanaldi*)
10. Saindu (*santu*)
11. Hotz (*tenperatura baxua*)
12. Hitz (*berba*)



Hitzak zoriz irakurri. Hitzak errepikatu. Abiadura gehitu.

**ORTOGRAFIA:**

**H**





6

## H-AREN BILA

H (hiru saiotarako proposamena)

7

## H-IHESKORRA

H (hiru saiotarako proposamena)

8

## HASIERAN-ERDIAN

H (bi saiotarako proposamena)

# H-AREN BILA

6

Edukia: H (hiru saiotarako proposamena)

🕒 9-10 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆

👤 Sasoi fisikoa

Ikasleak zutik.

Irakasleak, fitxaren zerrendatik, hitzak ozen irakurriko ditu.




Hitzaren baitan, honelako jarduerak egin:

- **H-rekin:** eskuak mahai gainean jarri eta flexio 1 egin.
- **H-rik GABE:** besoak luzatu eta belaunak flexionatu bizkarra zuzen mantentzen (sentadillak egin). 2 aldiz.

**Egokitzapena (mugikortasun murriztua):**

Eserlekuan:

- **H-rekin:** beso 1 altxatu eta beste jaitsi, txandaka. 3 aldiz.
- **H-rik GABE:** esku batekin lurra ukitu eta ondoren bestearekin. Txandaka. 3 aldiz.



## Hitz zerrenda (H):

### 1. Saioa

- |             |             |
|-------------|-------------|
| 1. Ospatu   | 11. Harritu |
| 2. Erbeste  | 12. Leiho   |
| 3. Omenaldi | 13. Deiadar |
| 4. Hustu    | 14. Zahar   |
| 5. Mahai    | 15. Gehitu  |
| 6. Hamahiru | 16. Haizea  |
| 7. Arbel    | 17. Hemen   |
| 8. Hondarra | 18. Armarri |
| 9. Ospitale | 19. Umil    |
| 10. Aztarna | 20. Aholku  |

### 2. Saioa

- |               |              |
|---------------|--------------|
| 1. Inauteri   | 11. Harria   |
| 2. Ertzain    | 12. Higadura |
| 3. Leial      | 13. Estu     |
| 4. Aizto      | 14. Hurbil   |
| 5. Hedatu     | 15. Ziur     |
| 6. Laurogei   | 16. Erail    |
| 7. Alabaina   | 17. Aran     |
| 8. Herensugea | 18. Gihar    |
| 9. Orrialde   | 19. Dohain   |
| 10. Herri     | 20. Hezurra  |

### 3. Saioa

- |                                  |
|----------------------------------|
| 1. Ondo ( <i>ongi</i> )          |
| 2. Hur ( <i>fruitua</i> )        |
| 3. Istorio ( <i>kontakizun</i> ) |
| 4. Hondo ( <i>behea</i> )        |
| 5. Haur ( <i>ume</i> )           |
| 6. Abil ( <i>trebe</i> )         |
| 7. Ari ( <i>jardun</i> )         |
| 8. Hala ( <i>erakuslea</i> )     |
| 9. Ar ( <i>ez eme</i> )          |
| 10. Ala ( <i>edo</i> )           |



Irakasleak hitzak poliki-poliki irakurriko ditu silabak ondo ahoskatuz. Hitzak “H” duenean hasi egiten mugimendua.

Edukia: H (hiru saiotarako proposamena)

🕒 9-10 minutu

Esfortzu maila: ★★★★★

👤 Sasoi fisikoa




Ikasleak zutik. Orpoak ipurdira eraman, txandaka eta **etengabe**. Irakasleak, fitxaren zerrendatik, hitzak poliki irakurriko ditu ondo ahoskatuz. Hitzaren baitan, honelako jarduerak egin:

- **H-rekin:** eskuak mahai gainean jarri eta flexio 1 egin. Gero, jarraitu orpoak ipurdira eramaten.
- **H-rik GABE:** besoak luzatu eta belaunak flexionatu bizkarra zuzen mantentzen ( 2 sentadilla). Jarraitu orpoak ipurdira eramaten.

**Egokitzapena (mugikortasun murriztua):**

Eserlekuan. Besoak gurutze forman, eskuak gora eta behera begira (**etengabeko errotazioan**).

- **H-rekin:** beso 1 altxatu eta bestea jaitsi, 3 aldiz. Gero, **jarraitu** eskuak gora eta behera errotazioan.
- **H-rik GABE:** esku batekin lurra ukitu eta ondoren bestearekin. Txandaka, 3 aldiz egin. Gero, **jarraitu** eskuak gora eta behera errotazioan.



## Hitz zerrenda (H):

### 1. Saioa

1. Hanka
2. Gehiago
3. Behia
4. Hosto
5. Ordu
6. Hilobia
7. Gauerdi
8. Erronka
9. Orri
10. Umore
11. Saihets
12. Leun
13. Istorio (*ipuin*)
14. Ilargi
15. Bihotza
16. Ahaztu
17. Ahate
18. Eroa
19. Iaz
20. Astelehen

### 2. Saioa

1. Harrapatu
2. Espetxe
3. Aho
4. Amua
5. Etsi
6. Eratzun
7. Haragi
8. Urrun
9. Hegazti
10. Ibaia
11. Ehiza
12. Neurri
13. Hortz
14. Handi
15. Ihesi
16. Ukitu
17. Esparru
18. Ahizpa
19. Ehun
20. Ilea

### 3. Saioa

1. Ondo (*ongi*)
2. Hur (*fruitua*)
3. Istorio (*kontakizun*)
4. Hondo (*behea*)
5. Haur (*ume*)
6. Abil (*trebe*)
7. Ari (*jardun*)
8. Hala (*erakuslea*)
9. Ar (*ez eme*)
10. Ala (*edo*)



*Ikaslegoa etengabe mugimenduan. Intentsitate altua.*

# HASIERAN-ERDIAN

8

Edukia: H (bi saiotarako proposamena)

🕒 9-10 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆

👤 Koordinazioa

Ikasleak zutik.

Irakasleak, fitxaren zerrendatik, hitzak ozen irakurriko ditu.




Hitzaren baitan, honelako jarduerak egin:

- **H hasieran:** salto eginez hankak alde batera eta eskuak beste aldera mugitu (**twist**). 3 aldiz alde bakoitzera.
- **H tartean:** eskuak sorbaldetan eta oinak kanpora ezker-eskubi mugitu. 3 aldiz alde bakoitzera.

**Egokitzapena (*mugikortasun murriztua*):**

Eserlekuan.

- **H hasieran:** besoak alde batera eta bestera mugitu (twist). 3 aldiz alde bakoitzera.
- **H tartean:** eskuak sorbaldatik aldakara. 3 aldiz.



## Hitz zerrenda (H):

### 1. Saioa

- |             |              |
|-------------|--------------|
| 1. Uharte   | 11. Hautatu  |
| 2. Hauspo   | 12. Hautsi   |
| 3. Habia    | 13. Aholku   |
| 4. Hainbat  | 14. Heriotza |
| 5. Herdoil  | 15. Hautsi   |
| 6. Ehun     | 16. Ahalmen  |
| 7. Hauteman | 17. Ohore    |
| 8. Uhin     | 18. Hauts    |
| 9. Ohitu    | 19. Aihotz   |
| 10. Uholde  | 20. Aho      |

### 2. Saioa

- |                        |                               |
|------------------------|-------------------------------|
| 1. Herio               | 11. Oihal                     |
| 2. Ihardetsi           | 12. Haitzulo                  |
| 3. Higuindu            | 13. Haitz                     |
| 4. Uhin                | 14. Harea ( <i>hondarra</i> ) |
| 5. Hilarri             | 15. Ahul                      |
| 6. Ahitu               | 16. Ehortzi                   |
| 7. Haur ( <i>ume</i> ) | 17. Haizea                    |
| 8. Ihar                | 18. Hausnartu                 |
| 9. Hainbeste           | 19. Ahizpa                    |
| 10. Ahuntz             | 20. Ahate                     |



*Hitzak bi aldiz irakurri. Bigarren aldiz irakurri ondoren, mugimendua egin.*

**ERGATIBOA:  
NOR ALA  
NORK?**



9

## BAT-BI!

NOR ala NORK? (bi saiotarako proposamena)

10

## NI ALA NIK?

NOR ala NORK? (bi saiotarako proposamena)



Edukia: **Ergatiboa: NOR** ala **NORK?** (bi saiotarako proposamena)

🕒 8-10 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆

👤 Sasoi fisikoa / Koordinazioa

Ikasleak zutik.

Irakasleak, fitxaren zerrendatik, esaldiak ozen irakurriko ditu.


Esaldi bakoitzeko bi hitz daude parentesi artean, horietatik, ikasleak zuzena asmatu behar du.

Ikasleak forma zuzenari dagokion mugimendua egin behar du.

Nor



Nork



Nor



Nork



- **NOR:** belauna igo eta bere azpian txalo egin. Beste hankarekin errepikatu.
- **NORK:** boxeoa. Ezker-eskumako besoekin ukabilkadak eman airean. 3 aldiz.

**Egokitzapena (mugikortasun murriztua):**

Eserlekuan.

- **NOR:** besoak aurrera luzatu eta 3 txalo eman.
- **NORK:** boxeoa. Ezker-eskumako besoekin ukabilkadak eman airean. 3 aldiz.

## Esaldi zerrenda (NOR ala NORK?):

### 1. Saioa

1. (Amaia/**Amaiak**) gola sartu du.
2. (Zu/**Zuk**)liburu bat idatzi duzu.
3. (**Zu**/Zuk) zara liburuaren protagonista.
4. Nire (arriba/**arrebak**) hamalau urte bete ditu.
5. (Ane/**Anek**) gola sartu du.
6. Ordenagailua erosi duena (**Irati**/Iratik) izan da.
7. (**Lara**/Larak) mendian bizi da.
8. (**Txominek**/Txomin) esan dit isilik egoteko.
9. (**Ianirek**/Ianire) bizikleta berria dauka.
10. (**Aita**/Aitak) joan egin da.
11. (Maitek/**Maite**) margolari ona da.
12. (Josunek/**Josune**) zure lehengusina da.
13. Zure (**txakurrak**/txakurra) oso zaharra dira.
14. Atzoko azterketa (Mikel/**Mikelek**) bakarrik gainditu zuen.
15. (Amaia/**Amaiak**) lau katu ditu.
16. (Lara/**Larak**) mendian lo egin du.
17. (**Maitek**/Maite) ile horia dauka.
18. Zure etxeko (katua/**katuak**) leihotik ihes egin du.
19. (Felix/**Felixek**) istorio bat asmatu du.
20. (Amaiak/**Amaia**) eta Peru lagunak dira.

### 2. Saioa

1. (**Zu**/Zuk) izan zara egilea.
2. (**Guk**/Gu) bilera dugu.
3. (Katua/**Katuak**) sagua hil du.
4. (**Zu**/Zuk) guztiz zikindu zara jolasten.
5. (Itsasoa/**Itsasoak**) ur asko du.
6. (Guk/**Gu**) lagunak gara.
7. (Gizona/**Gizonak**) egunkaria du.
8. Oso harro jarri da (**neskatila**/neskatilak).
9. (**Gizona**/Gizonak) txikia da.
10. (**Ni**/Nik) berandu sartu nintzen azokara.
11. (Ane/**Anek**) egin du.
12. (**Miren**/Mirenek) etorri da.
13. Atzo oso goiz joan zen etxera (**Nekane**/Nekane).
14. (**Katua**/Katuak) hil da.
15. Arratsalde osoan jardun du (Nekane/**Nekane**) pilotan.
16. (**Jon**/Jonek) ere galdu zen mendian.
17. Liburuak eraman ditu (neskatila/**neskatilak**).
18. (Ni/**Nik**) dena atera nuen etxetik.
19. (Jon/**Jonek**) azterketa gainditzeko aukera oro galdu du.
20. (**Itsasoa**/Itsasoak) handia da.



*Esaldiak irakurtzean, parentesi artean adierazitako hitzak nabarmendu.*

Edukia: **Ergatiboa: NOR** ala **NORK?** (bi saiotarako proposamena)

🕒 8-10 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆

👤 Sasoi fisikoa / Koordinazioa

Ikasleak zutik.

Irakasleak, fitxaren zerrendatik, esaldiak ozen irakurriko ditu.


Esaldi bakoitzeko bi hitz daude parentesi artean, horietatik, ikasleak zuzena asmatu behar du .

Nor



- **NOR**: belauna igo eta bere azpian txalo egin. Beste hankarekin errepikatu.

Nork




- **NORK**: boxeoa. Ezker- eskumako besoekin ukabilkadak eman airean, 3 aldiz.

**Egokitzapena (mugikortasun murriztua):**


Eserlekuan.

Nor



- **NOR**: besoak aurrera luzatu eta 3 txalo eman.
- **NORK**: boxeoa. Ezker-eskumako besoekin ukabilkadak eman airean. 3 aldiz.

Nork



## Esaldi zerrenda (NI ala NIK?):

### 1. Saioa

1. (**Ni**/Nik) etxera noa.
2. (Ni/**Nik**) etxea erosi dut.
3. (**Ni**/Nik) igerilekura joan nintzen.
4. (Ni/**Nik**) liburu bat idatziko dut.
5. (Ni/**Nik**) belarra moztu dut.
6. (**Ni**/Nik) gurasoen etxean bizi nazi.
7. (**Ni**/Nik) oportretan mendira joango nintzateke.
8. (Ni/**Nik**) bale bat ikusi nuen.
9. (Ni/**Nik**) gauza asko esango nituzke.
10. (Ni/**Nik**) txapelketan parte hartuko dut.

### 2. Saioa

1. (**Ni**/Nik) menditik etorri naiz.
2. (**Ni**/Nik) lo nago.
3. (Ni/**Nik**) lagunduko dizut etxeko lanekin.
4. (**Ni**/Nik) Donostian bizi izan naiz 6 urtez.
5. (Ni/**Nik**) hondartzan igeri egin nuen.
6. (Ni/**Nik**) gitarra jotzen dut.
7. (**Ni**/Nik) gelako zaharrena naiz.
8. (**Ni**/Nik) amaren autoan etorri naiz.
9. (Ni/**Nik**) azterketa gainditu dut.
10. (**Ni**/Nik) osasuntsu nago.



*Parentesi artean dagoena nabarmendu.*

**IZENA**



## 11 **ARRUNTA EDO BEREZI**

Izenak: arruntak eta bereziak  
(2 saiotarako proposamena)

## 12 **ZENBAKARRIA AL DA?**

Izen arruntak: zenbakarriak edo zenbakaitzak  
(2 saiotarako proposamena)

## 13 **NEURTU DAITEKE?**

Zenbakaitzak: neurgarriak eta neurgaitzak  
(2 saiotarako proposamena)



# ARRUNTA EDO BEREZI

11

**Edukia:** Izenak **arruntak** eta **bereziak** (2 saiotarako proposamena)

🕒 8-9 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆

👤 Sasoi fisikoa

Ikasleak zutik.

Irakasleak, fitxaren zerrendatik, esaldiak irakurriko ditu.



Hitzaren baitan, honelako jarduerak egin:

- **ARRUNTAK:** tokitik mugitu gabe, hankekin oinezko mugimendua egin eta besoak gora eta behera ahal den eta azkarren mugitu 3 segundoz.
- **BEREZIAK:** tokitik mugitu gabe, korrika mugimendua ahal den eta azkarren mugitu 3 segundoz.

**Egokitzapena (mugikortasun murriztua):**

Eserlekuan.

- **ARRUNTAK:** 2 besoak luzatu eta elkarrekin gora eta behera, 3 aldiz.
- **BEREZIAK:** 2 besoekin batera borobilak egin. 3 borobil.



## Hitz zerrenda (arruntak / bereziak):

### 1. Saioa

- |                |                |
|----------------|----------------|
| 1. Aita        | 11. Auto       |
| 2. Hiri        | 12. Bartzelona |
| 3. Maider      | 13. Baso       |
| 4. Plentzia    | 14. Liburu     |
| 5. Neska       | 15. Ainhoa     |
| 6. Sagar       | 16. Txakur     |
| 7. Kale        | 17. Haur       |
| 8. Bilbo       | 18. Ibon       |
| 9. Hondarribia | 19. Indar      |
| 10. Mahai      | 20. Ander      |

### 2. Saioa

- |                |                |
|----------------|----------------|
| 1. Kutxa       | 11. Itsasontzi |
| 2. Zuhaitz     | 12. Miren      |
| 3. Ilargi      | 13. Azukre     |
| 4. Ontzi       | 14. Kafe       |
| 5. Arrosa      | 15. Lur        |
| 6. Ordenagailu | 16. Uda        |
| 7. Arkatz      | 17. Japonia    |
| 8. Lehoi       | 18. Sua        |
| 9. Eliza       | 19. Erreaktore |
| 10. Tximino    | 20. Txakolin   |



*Hitzak zoriz irakurri. Gero eta azkarrago irakurri.*

# ZENBAKARRIA AL DA?

12

**Edukia:** Izen arruntak **zenbakarriak** edo **zenbakaitzak** (2 saiotarako proposamena)

🕒 8-9 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆

👤 Sasoi fisikoa

Ikasleak zutik.

Irakasleak, fitxaren zerrendatik, hitzak irakurriko ditu.

Hitzaren baitan, honelako jarduerak egin:


- **ZENBAKARRIAK:** salto egin besoak altxatuz. Lurreratzean hankak gurutzatu.
- **ZENBAKAITZAK:** lurra 2 eskuekin ukitu eta salto.

**Egokitzapena (mugikortasun murriztua):**

Eserlekuan.

- **ZENBAKARRIAK:** besoak altxatu. Ondoren, mahai gainean eskuak gurutzatu (ezker eskua behean). Berrito besoak altxatu eta mahai gainean eskuak gurutzatu (eskuin eskua behean).
- **ZENBAKAITZAK:** 2 eskuekin belaunak ukitu eta besoak altxatu.


Zenbakarriak



Zenbakaitzak



Zenbakarriak



Zenbakaitzak



## Hitz zerrenda (zenbakarriak/zenbakaitzak):

### 1. Saioa

- |              |                |
|--------------|----------------|
| 1. Hotz      | 11. Ume        |
| 2. Kea       | 12. Gogo       |
| 3. Zauri     | 13. Justizia   |
| 4. Edertasun | 14. Izar       |
| 5. Sagar     | 15. Berogailua |
| 6. Hotz      | 16. Gari       |
| 7. Ardo      | 17. Bero       |
| 8. Mahai     | 18. Gatza      |
| 9. Motxila   | 19. Haserre    |
| 10. Maitasun | 20. Zaldi      |

### 2. Saioa

- |               |               |
|---------------|---------------|
| 1. Etxe       | 11. Kutsadura |
| 2. Ohe        | 12. Urte      |
| 3. Gorroto    | 13. Olio      |
| 4. Denbora    | 14. Ur        |
| 5. Beldurra   | 15. Haize     |
| 6. Esnea      | 16. Poza      |
| 7. Liburua    | 17. Ozpin     |
| 8. Koadernoia | 18. Nazka     |
| 9. Samina     | 19. Irina     |
| 10. Ogia      | 20. Odola     |



*Hitzak zoriz irakurri.*

# NEURTU DAITEKE?

13

**Edukia:** zenbakitzak **neurgarriak** eta **neurgaitzak** (2 saiotarako proposamena)

🕒 8-9 minutu

Esfortzu maila: ★★☆☆☆


👤 Sasoi fisikoa / Koordinazioa

Ikasleak zutik.

Irakasleak, fitxaren zerrendatik, hitz **ZENBAKAITZAK** irakurriko ditu.

Ezaugarrien baitan, honako jarduerak egin:


- **NEURGAITZA:** ezkerreko eskuarekin lurra ukitu eta jarraian ezker hankarekin salto egin.
- **NEURGARRIA:** eskuineko eskuarekin lurra ukitu eta jarraian eskuineko hankarekin salto egin.



**Egokitzapena (mugikortasun murriztua):**

Eserlekuan.

- **NEURGAITZA:** eskuineko eskuarekin eskuin belauna ukitu eta eskuin besoa altxatu.
- **NEURGARRIA:** ezkerreko eskuarekin ezker belauna ukitu eta ezker besoa altxatu.



## Hitz zerrenda (neurgarria/neurgaitza):

### 1. Saioa

- |               |            |
|---------------|------------|
| 1. Odol       | 11. Poza   |
| 2. Ke         | 12. Papera |
